

Fontes

Linguae Vasconum

50 urte. Ekarpen berriak

euskararen ikerketari

Nuevas aportaciones al

estudio de la lengua vasca

Ahozko euskara *Kolegioko*
ikastresna ikasmaterialean

ARGIA OLÇOMENDY

Argitaratzaileak / Editores

Ekaitz Santazilia

Dorota Krajewska

Eneko Zuloaga

Borja Ariztimuño



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Ahozko euskara *Kolegioko ikastresna* ikasmaterialean

Oral Basque in the *Kolegioko ikastresna* teaching materials

ARGIA OLÇOMENDY

Université Bordeaux-Montaigne – IKER (UMR 5478)

argia.olcomendy@u-bordeaux-montaigne.fr

JASOA: 2019/07/31 | BEHIN-BEHINEAN ONARTUA: 2019/10/02 | BEHIN BETIKO ONARTUA: 2019/12/09

LABURPENA

Esku-liburua irakasleen lan-tresna nagusi, hezkuntzaren aktore, eta aldi berean ikerketa-objektu da. Programetan argiki ikus daitekeen bezala, azken urteetan hizkuntzen irakaskuntzan ahozko hizkuntzaren garrantzia aitzinean emana izan da. Euskarazko esku-liburuen aztertzeak Euskara eskolako irakasgaia den diziplinari buruz informazio anitz ematen ditu. Artikulu honetan aipatuko dugu ahozko euskararen tokia zein den *Kolegioko ikastresna* euskarazko ikasmaterialean, bereziki aztertuz programa ofizialen norabideak nola kontuan hartuak diren eta hizkuntza zein ikuspegitatik landua den. Dakigun bezala, euskararen didaktikan ahozko hizkuntzaren didaktikak leku berezia du.

ABSTRACT

The textbook is at the same time a main tool of teachers, an actor in education and an object of research in didactics. Teaching programs show that in recent years oral teaching has been emphasized in language teaching. Analyzing Basque textbooks can provide information on the «Basque» discipline. In this article, we will discuss the place of oral Basque language in the school material *Kolegioko ikastresna*, by analyzing how the textbook follows the orientations of language teaching programs, and by observing through which approach the language is studied. As we know, in Basque didactics, the place of the oral remains fundamental.

Gako-hitzak: ikasmateriala; hezkuntza-curriculumak; ahozko hizkuntzaren didaktika.

Keywords: textbooks; education curricula; didactics of the oral language.

1. Sarrera

Ipar Euskal Herrian irakaskuntza elebidunak 40 bat urte izanez, euskarri pedagogikoen eskaintza gero eta aberatsagoa bilakatzen ari da. Frantzian 1970eko hamarkadatik goiti, esku-liburuaz azterketak ikerketa-eremu berria ireki du (Choppin, 1980) eta horren seinale dira azken 15 urteetan Frantzian antolatutako diren Pierre Guibbert jardunaldiak, helburua delarik ikerketa eremu berezi horri buruzko bildumaren egitea eta gogoeta-talde baten osatzea. Eskuliburua objektu berezia da eta honen aztertzeke eskolako erakundeen historiari so egin behar zaio, irakasgaien historiari, eta oro har eskolako kulturari (Chervel, 1998). Ikerketa-objektu gisa, eskuliburua bere garaiko lekuko bezala agertzen da. Hego Euskal Herrian euskarazko lau eskuliburuaren inguruan ikerketa bat egin da, ahozkoaren tokiaren aztertzeke (Garcia-Azkoaga, Imaz, Diaz de Gereñu & Alegria, 2010).

Usaian eskuliburu baten sortzeke, lan-talde bat biltzen da, ikertzaile, irakasle eta ikuskariak osatua. Gogoeta sakona galdegiten du, lanaren eta denboraren aldetik, hain zuzen idazteke, ikertzeke, berriz idazteke, berrirakurtzeke, eta abarrerako.

Gure galdeak hauek dira: *Kolegioko ikastresna* ikasmateriala HEEEBk proposatzen duen markoaren baitan kokatzen ote da? Frantziako Hezkuntza Ministerioak finkatzen dituen programei egokitua ote da? Zer leku du ahozko euskarak? Artikulu honetan aztertuko dugu *Kolegioko ikastresna* ikasmaterialak 2015eko laugarren zikloko programekin duen lotura, eta ahozko euskarari ematen zaion tokia, hurbiletik so eginez.

1.1. Eskuliburua

Hasteko, eskuliburuaren definiziotik abia gaitzen, funtsezkoa baita eskuliburua kalitatezkoa izan dadin.

Le manuel, comme en témoigne son étymologie (latin *manus*, 'la main'), se définit à l'origine comme un ouvrage de format réduit qui renferme l'essentiel des connaissances relatives à un domaine donné. Depuis la fin du 19e siècle, ce terme désigne tout spécialement les ouvrages qui présentent celles qui sont exigées par les programmes scolaires. [...] Ce que l'opinion publique désigne sous l'appellation générique de « manuels » recouvre en réalité des instruments qui assument des fonctions pédagogiques diverses bien que complémentaires. Ils ne jouissent d'ailleurs pas du même statut réglementaire et leur mode de financement n'est pas assuré de façon identique (Choppin, 1998, 9-11. or.).

Eskuliburua kultura baten adierazle da. *Kultura* zentzu largoan hartuz, edozein irakasgaitan gaitasun intelektualak garatzen ditu; jakitatea, kultura unibertsala. Gure kasuan, euskarako eskuliburuak, atzerriko hizkuntzetako eskuliburuak ez bezala, tokian tokiko kultura baten adierazle dira. Eskuliburua ikaskuntzarendako tresna nagusia da, ikasle eta irakasleen beharrei erantzuteko pentsatua. Autoreek programa ofizialetarik ateratzen diren irakaskuntzarako edukiak proposatzen dituzte, forma anitzen bitartez (testu, marrazki, irudi, grabaketa, etab.). 2004ko dekretuak definizio hau finkatzen du¹:

Sont considérés comme livres scolaires, au sens de l’alinéa 4 de l’article 3 de la loi du 10 août 1981 susvisée, les manuels et leur mode d’emploi, ainsi que les cahiers d’exercices et de travaux pratiques qui les complètent ou les ensembles de fiches qui s’y substituent, régulièrement utilisés dans le cadre de l’enseignement primaire, secondaire et préparatoire aux grandes écoles, ainsi que des formations au brevet de technicien supérieur, et conçus pour répondre à un programme préalablement défini ou agréé par les ministres concernés. La classe ou le niveau d’enseignement doit être imprimé sur la couverture ou la page de titre de l’ouvrage.

Eskuliburuak lau funtzio nagusi ditu: erreferentziala, instrumentala, ideologiko eta kulturala, eta dokumentatzailea. Lehen funtzioa programa edo curriculumari lotzen zaio, eskuliburua baita transmititzekoa den edukien euskarri bakarra, programa ofizialen interpretazio praktikoa. Bigarrenak eskuliburuaren baliatzea aipatzen du, eskuliburuan agertzen baitira ikaskuntza-metodoak, jarduerak eta progresio egituratu bat. Hirugarren funtzioa ideologikoa eta kulturala da, garai, herrialde eta irakasgaien arabera aldatzen dena. Azken funtzioak dokumentuei egiten die erreferentzia: eskuliburuak ikaslearen espiritu kritikoa garatzeko dokumentuak, testuak eta dokumentu ikonografikoak eskaintzen ditu (Choppin, 2005).

Laburbiltzeko, eskuliburu batek laguntza pedagogikoa ekartzen du, liburu didaktikoa da, errazki moldatzen da, eta irakaskuntza-prozesu batean baliatzen, ontsalaz metodologia berezi bati segituz. Frantzian, tokiko hizkuntzen eskuliburu sailean, ikerketa-eremu hori berriki irekia izan da, helburua delarik aztertzea zer harreman den eskolaren eta tokiko hizkuntzen artean aro garaikidean (Lespoux & Verny, 2018).

1.2. Programak: hizkuntzak eta frantsesa

Frantzian, programa berak dira tokiko eta atzerriko hizkuntzen irakaskuntzarendako. EEMBN oinarritzen dira, ondorioz ekintza ikuspegia proposatzen da, ikasleak honela kontsideratuz: «des acteurs sociaux ayant à accomplir des tâches (qui ne sont pas seulement langagières) dans des circonstances et un environnement donnés, à l’intérieur d’un domaine d’action particulier» (Conseil de l’Europe, 2001, 15. or.).

¹ «Décret n° 2004-922 du 31 août 2004 modifiant le décret n° 85-862 du 8 août 1985 pris pour l’application de la loi n° 81-766 du 10 août 1981 modifiée relative au prix du livre en ce qui concerne les livres scolaires».

EEMBn eta hizkuntza-programetan, testu literarioek duten tokia zehaztekoa da: hizkuntzen irakasteko metodologiaren historian, testu literarioak ukan behar duen tokia eztabaidagai izan da. Batzuetan laudatua, besteetan baztertua, zenbait aldiz testuari bere literaturtasuna kendua izan zaio dokumentu autentiko bilakatzeko. EEMBean testu literarioa laugarren kapituluari aipatzen da, baina dokumentu autentiko bezala kontsideratuz «beste artean» (Conseil de l'Europe, 2001, 19. or.). Urrunago, hizkuntzaren erabilera estetiko edo poetikoa «amentsari edo plazerari» lotzen zaio (Conseil de l'Europe, 2001, 47. or.). Testu literarioa B2 mailatik goiti baizik ez da agertzen. Hain zuzen, 4. zikloko hizkuntzetako programek 4 nozio proposatzen dituzte (MENESR, 2015, 264. or.), eta frantses-programek 4 sartze handi (MENESR, 2015, 244. or.).

1. taula. Hizkuntza- eta frantses-programak 4. zikloan

Hizkuntza-programak: 4 nozio	Frantses-programak: 4 sartze
1. Hizkuntzak	1. Bere bidea bilatu, bere burua eraiki
2. Eskola eta gizartea	2. Gizartean bizi, gizartean parte hartu
3. Bidaiak eta migrazioak	3. Munduari so egin, munduak asmatu
4. Kausitzeak beste kulturekin	4. Munduan eragin

Sartze horietarik abiatuz ikasmaita bakoitzarentzat galdekatze bereizi bat zehaztua da. Hizkuntzentzat 6 gaitasun dira, eta ahozkoa horietarik 3tan aurkitzen da: ulermena, mintzamina, interakzioa (MENESR, 2015, 262. or.)². Gaitasun bakoitzarentzat mailakatu bat proposatzen da (A1 mailatik B1 mailara), adibidez, jarduera eta baliabide-proposamenak agertzen dira. Gramatikan eta fonologian norabide orokorrak baizik ez dira emanak (MENESR, 2015, 264. or.). Frantseseko programetan, aldiz, 6 gaitasun dira, horietan bakarria ahozkoari lotua. Gaitasun linguistikoetan, ikuspegi testuala eta diskurtsiboa gramatikari, ortografiari eta lexikoari gehitzen zaizkie.

1.3. Ahozko euskara: IKASen baliabideak

Ahozko euskararen fonologia, izenaren morfologia, aditzaren morfologia, sintaxia, hiztegia eta hizkerak barne sartzen dira. Euskararen irakaskuntzan ari direnek galde anitz dute jakiteko eskolak zer transmititu behar duen eta zer ez. Hizkuntzen alderdi fonetiko-fonologikoa (gehienetan ahozkoaren didaktikaren azpi-gaia) guti irakasten da eskolan (Sauvage & Billières, 2019). Alta, ezaugarri fonologikoak, fonemen errepertorioa, arau fonologikoak eta bilakaera fonetikoak funtsezkoak dira eta hizkuntza bakoitzean ahozko hizkerak ezaugarri bereziak ditu: interjekzioak, harridura-perpauzak, onomatopeiak, errepikapenak, ezezko perpauzen berezitasunak, hitz-ordena bereziak, etab. Bestalde, ahozkoaren ezaugarri nagusietarik bat errorearen tratamendua da (Larringan & Idiazabal, 2001, 36. or.). Egoera formaletan errore gutiago egiten da, hitzak gehiago

² Ik. eranskina.

kontrolatzen dira, erranaldi bat molde batean hasten da eta beste batean bukatzen, etab. Ekoizpenen ebaluatzeko mementoan, aspektu horiek kontuan hartzekoak izanen dira.

IKAS pedagogia-zerbitzuak ikasmaterialgintzako zerbitzu publikoa ematen du eta lau sareren federazio-elkarte egitura du (sare publikoa, pribatua, ikastolak eta AEEK). Ahozkoaren inguruko baliabideei buruz, hezkuntza nazionaleko ebaluazio-txostenak ahozko baliabide eskasa azpimarratu zuen:

Les productions pédagogiques propres à l’enseignement de la langue basque et à l’enseignement en basque gagneraient à être développées. Cela passe par sans doute par une réflexion didactique relative aux spécificités de la langue basque, notamment dans sa dimension orale. La mission a fait le constat d’un nombre encore modeste de ressources didactisées ou de ressources sonores spécifiques, ancrées dans le quotidien, actualisées et dédiées aux entraînements aux différents types de compréhension de l’oral (Haddouche, Dupuit, Roser, Scarbonchi & Laporte, 2016, 68. or.).

Ahozkoaren presentzia eskolako programetan ez da berria, baina 2015eko programek jakitate bereziak finkatzen dituzte ahozkoaren irakaskuntzarentzat, eta ikasleek moldatu behar dituzten gaitasunak zehazten, ikerketako emaitzetan oinarrituz.

2. Metodologia

Gure helburua da ikasmaterialaren osagaien aztertzea: ariketa-mota, euskarri, audio, bideo, eduki, irakaskuntza-programen ikuspegitik, gramatikaren tokia, edukien egitura (unitate didaktikoak), helburuak, euskarri pedagogikoak, etab. Artikulu honek norabide zenbait aitzinatu nahi lituzke euskararen didaktikan, ahozkoaren irakasteko kolegio eta lizeoetan.

2.1. Ikasmaterialaren osagaiak eta antolaketa

Ikasmateriala aurkeztu aitzin, funtsezkoa da azpimarratzea aztergai gisa hautatu dugun materiala osatzen ari den material zabalago baten hastapena baizik ez dela. Hain zuzen, *Kolegioko ikastresna* ikasmaterialak 4. zikloko pentsatuak izan diren 7 tematiketarik 2 proposatzen ditu (lehena eta laugarrena) eta segida bidean da. Ikasmateriala formatu numerikoan proposatua zaie irakasleei eta IKAS pedagogia zentroaren webgunean telekargatzen ahal da.

Materialaren lehen orrialdean 7 tematika zehaztuak dira: 1. Bidaiak eta abenturak; 2. Euskal Herria eta euskara; 3. Ondarea eta ohidurak; 4. Bere bidearen bilatzea eta nortasunaren eraikitzea; 5. Gizartean bizitzea eta parte hartzea; 6. Munduari so egitea, munduak asmatzea; 7. Natura eta ingurumena.

Ikasmaterialaren seinaletika-fitxa:

- Izenburua: *Kolegioko ikastresna*
- Autorea: Nelly Challet, irakasle-talde baten laguntzarekin

- Gainbegirada: Hezkuntza nazionalako ikuskaria
- Argitalpena: IKAS
- Argitaratze-data: 2017
- Publikoa: 4. zikloko sail elebiduneko ikasle (12-15 urte) eta irakasleentzat
- Maila: kolegioko 5., 4., 3. maila elebidunak
- Sartzea: ikuspegi komunikatiboa

Material pedagogikoa:

- Lehen gaia: bidaiak, abenturak eta joan-jinak (73. or.)
- Bigarren gaia: bere bidearen bilatzea eta nortasunaren eraikitzea (69. or.)
- Gramatika (33. or.)
- Gramatika (41. or.)

Ikasmaterialaren azken orrialdean, hona zer emana zaigun:

IKASEK garatu duen *Kolegioko ikastresna* irakasleen praktketan oinarritua da. Ikastresna hori 7 tematikaren inguruan egituratua da, eta tematika bakoitzean maila bakoitzari (5, 4, 3) doazkion edukiak atzeman daitezke. Eduki horiek B2 mailako azterketan oinarrituak dira, hala nola 5 gaitasunen inguruan: entzunaren ulermena, idatziaren ulermena, ahozko adierazpena, idatzizko adierazpena, eta elkarreragina. Bestalde, gramatika lantzeko ariketak ere badira (Challet *et al.*, 2017a, 74. or.).

Irakasleen praktikek garrantzia dute ikasmaterial honen moldatzean. 5 gaitasunak abiapuntutzat hartuak dira, eta sekuentziak gaitasunen inguruan antolatuak. Gaitasun bakoitzaren lantzeko, euskarriak eta horien ustiapen pedagogikoa proposatuak dira.

2.2. Azterketa-irizpideak

Eskuliburuaren azterketa molde anitzetan egin daiteke. Lehenik euskarriaren ekoizpen-baldintzak azter daitezke: baldintza politikoak, argitalpen-baldintzak, publikoa, eskuliburua zer egoeretan baliatua den, metodologia, etab. Ondotik, objektua bera: egitura orokorra eta barne-egitura. Azkenik, edukietan sar daitezke: eduki metodologikoa, progresioak, jarduerak, hizkuntza eta diskurtsoa, baloreak, etab. (Verdelhan-Bourgade & Auger, 2011). Euskarazko eskuliburuaren inguruko ikerketa batentzat Ines Garcia-Azkoagak proposatu taula baliatuko dugu, euskarazko testuliburuaren ahozkotatasunaren aztertzeko (Garcia-Azkoaga *et al.*, 2010, 15. or.).

1. Ikasmaterialaren osagaiak: ikaslearen kaiera, irakaslearentzat erantzunak, ikusentzunezko dokumentuak euskarri gisa, etab.
2. Eredu didaktikoa eta curriculumarekiko harremana: oinarri epistemologikoak eta metodologikoak, hizkuntzaren irakaskuntzari buruzko abiapuntu teorikoak, metodologia, edukien lantzeko moldea (taldeka, banaka, etab.), programak eta ikasmateriala, ebaluazio-mota, ahozkotatasunaren ikuspegiak, ahozkotatasunaren definizioa.

3. Edukien egitura: ahozko hizkuntzaren lantzeko helburuak, edukiak, jardueramotak, ebaluazioak, ahozkotasuna eta testu-generoa, ahozkotasunaren alderdiak, gramatikaren lekua eta ikuspegi normatiboa, ariketekin proposatzen diren euskarriak, etab.

3. Azterketaren emaitzak

3.1. Ahozko euskarriak

Kolegioko ikastresna 1 ikasmaterialean ahozko euskarriak hauek dira: kantuak, *Atharratze jauregian* (Benito Lertxundi), *Goizian goiz jeikirik*, *Bereterretxen kantoria*, *Lili* (P. Perret; A. Alkhat; G. Larroudé), *Semeari* (Xalbador; Aire ahizpak); entzungaia, *Indianoak Ternuan* (Euskal Irratiak); film laburra, *Albaola*, *San Juan itsasontzia* (Kanal-dude); irrati-emankizunen zatiak: *Baigorri egon errefuxiatuak* (Euskal Irratiak), *Andrea Bidart* (Euskal Irratiak).

Kolegioko ikastresna 2 ikasmaterialean ahozko euskarriak altxatu ditugu. Kantuak: *Zure begiek* (Daniel Landart; Mikel Laboa), *Negua joan da ta* (Zea mays), *Ilargia* (Ken Zazpi), *Itxaropena* (Ken Zazpi), *Ezer ez da betiko* (Ken Zazpi), *Aitormena* (Hertzainak), *Neskatoa haur beharretan* (Jojo eta Ramuntxo), *Maitatua sobera/ama* (Oxobi; Txakun); elkarrizketa: *Maialen Errotabehere amodioaz mintzo*; telebista-emankizunaren zatia: *EiTBko Tumatxa* emankizuna: *Maitasun-kantak*. Maitasuna erakutsia zaigu maitalearen sentimendu anitzak agerraraziz, edukiak hautatuak dira ikasleari beharrezkoak zaizkion baloreak kontuan hartuz.

Bereterretxen kantorea, *Brodatzen ari nintzen* eta *Ama* ahozko literaturako euskarriak dira. Bertsoz osatuak diren istorio horietan hizkuntza-baliabide anitz agertzen da. Eskuliburua ahozko euskal literaturaren ezagutarazteko molde ezin hobea da. Ahozko euskarri hauetan kantua agertzen da, euskal kulturaren kantagintzak duen tokiaren seinale. Kantua eta amodioa elkarri lotuak dira, amodiozko kantu anitzekin. Euskal kantagintzaren ustiapen pedagogikoa aztergai interesgarria litzateke ikusteko kantua euskarri gisa nola baliatua den. Kantuaren definizio generikorik agertzen ez bada ere, kantuak euskarri pedagogiko nagusiak dira, eta autore gehienak beren ingurumen soziokulturalean kokatuak dira (Gourvennec, 2008).

3.2. Literatura

Literaturaren aldetik, bi ikuspegi dira: funtzionala eta estetikoa. Halere, aspektu funtzionala ez da beti agertzen. Adibidez, *Brodatzen ari nintzen* kantuarentzat, metrika eta diskurtso-motak (narrazioa, deskripzioa, elkarrizketa) esplikatuak dira. Erran zaharrek lekua badute ariketa gisa, baina ez dira euskarri nagusi (Challet *et al.*, 2017a, 20. eta 42. or.). Casenaveren artikuluko batek hauxe dio: «Les deux principaux genres mineurs qu'il faudrait mieux intégrer dans le patrimoine littéraire basque sont les proverbes et les fables» (Casenave, 2018). Ikasmaterial honetan alegiarik agertzen ez bada ere, errazki

tematika batean³ sar daitezke. «La place accordée à la littérature populaire [...] sera différente dans un manuel de littérature française et dans un manuel consacré à la littérature basque» (Casenave, 2018).

3.3. Lexikoa

Hizkuntzaren aspektu horren lantzeko jarduerak sekuentzien barnean dira, gramatika ez bezala. Programetan lexikoari buruz zehaztua dena arraz zabala da, eta nozio kulturelei lotzen zaie. *Kolegioko ikastresna* ikasmaterialean lexikoa lantzen duten ariketa zenbait altxatu dugu:

- (1) Testuingurua kontuan hartuz, bakoitzaren antonimo bat atzeman ezazu (Challet *et al.*, 2017a, 15. or.).
- (2) Hitz hauek bi taldetan sailka itzazu (bizidunak eta bizigabeak), eta frantsesezko erranahiak aurki itzazu (Challet *et al.*, 2017a, 20. or.).
- (3) Izarraren barneko hitzen sinonimoak testuan aurki itzazu, eta ondoan idatzi (Challet *et al.*, 2017, 38. or.).
- (4) Sinonimoak: testuko hitz hauen sinonimoak letra-zopan aurki itzazu (gainbehera) (Challet *et al.*, 2017a, 42. or.).
- (5) Sentimenduen adierazteko hiztegia: maitasuna, haserrea, itxaropena, herra, bozkariora, beldurra, harridura, tristezia (Challet *et al.*, 2017a, 58. or.).

Kontsignak programek gomendatuari jarraikitzen zaizkio; zenbait motatako ariketak dira (antonimo, sinonimo, frantsesezko erranahi, etab.). Ikusmolde integratzailea agertzen da, ikasleek bi hizkuntzen arteko transferentziak egin ditzaten (*amitié* > *adiskidetasun*). Lexiko-ariketak euskarriari zuzenki lotuak dira, gramatikakoak ez bezala.

3.4. Gramatika

Gramatikaren aldetik, programetan izena eta izen-sintagma, aditz-sintagma eta erranaldi simple eta konplexuak ezberdinak dira⁴. Aldiz, gure ikasmaterialek beste zatiketa bat proposatzen du oraino, zazpi partetan: aditza, perpausak, lokuzioak, deklinabidea, lexikoa, ortografia eta beste.

Gramatikaren erreferentzia morfosintaxi-moldekoa da; progresio gramatikala horri jarraikitzen zaio hizkuntzaren erranaldi-gramatika lehenetsiz, testu-gramatika baino gehiago. Aditzarentzat, perpausentzat eta lokuzioentzat progresioa esplizitua da, arau gramatikalak emanak dira eta ikasleak ez du horien aurkikuntzan parte hartzen. Kurbil-progresioa da: maila bakoitzaren hasiera berrikusketekin hasten da, aditzarentzat,

³ Radiokultura irriatiak *Alegian... alegiak La Fontaine-enak* emankizuna proposatzen du, Lafontaineren alegiak euskaraz, Delphine Lubetek itzuliak, Delphine Lubetek eta Eñaut Larraldekin kontatuak.

⁴ Ik. eranskina.

perpausentzat eta lokuzioentzat. Aldiz, deklinabidean, lexikoan eta ortografian progresioak osatzekoak dira. Ariketak ez dira ikas-unitateari lotuak; sekuentzietarik arras bereiz dira eta, ondotik, irakasleari zuzenduak zaizkion erantzunak ditugu.

Gramatikako ariketa zenbaitetan, ikasleen gaitasun metalinguistikoa lantzen da, adibidez denborazko perpausetan parte nagusia eta mendekoa bereiztea galdeginez (Challet *et al.*, 2017c, 16. or.). Beste batzuetan, hizkuntzen ikusmolde integratzailea dugu, bereziki bi hizkuntzen baliatzea galdegiten duten ariketetan. *Hizkuntza-errepertorioaren* nozioak erakusten du eskolan beharrezkoa dela jadanik hor diren hizkuntzen kontuan hartzea. Garciak (2005) eta Cumminsek (2008) *heritage languages* eta *translanguaging* nozioak garatu dituzte pedagogia elebiduna/eleanitza eta dinamikoa proposatuz. Ikasle baten errepertorio linguistikoa osatzen duten hizkuntzen artean interdependentzia bada eta ikaskuntza linguistikoa jadanik ezagutzen dituen hizkuntzei lotua da. Izan ere, programak ere bide horretarik doaz: «La mise en relation des langues enseignées prend des formes diverses: comparaison de fonctionnement, convergence ou différenciation des démarches, transfert de stratégies, réflexion culturelle» (MENESR, 2015, 255. or.).

3.5. Fonologia

Fonologiaren aldetik, programetan emanak diren norabideak ikasmaterialean barreiatuak agertzen dira. Gramatika ez bezala, fonologia ikasmaterialean ez da bereiz emana, baina programan eman norabideak ariketa zenbaiten bitartez lantzen dira. Adibidez, *Brodutzen ari nintzen* kantuen ustiapen pedagogikoan ondoko kontsigna agertzen da: «*Brodutzen ari nintzen* zuberotarrez irakur ezazu» (Challet *et al.*, 2017a, 21. or.). Ariketa honek ikasleak ohartarazten ditu euskarak dituen aldaera fonologiko ezberdinei; hemen, zuberotarraren ezaugarri fonologikoei. Gisa berean, Piarres Lartzabalen *Hiru ziren* antzerki-zatiaren lantzeko, prosodiaren lantzeko ariketa bat bada: «1. Ongi ahoskatzen dut. A. Doinu egokiarekin Pantxoren bakarriketa irakur, puntuazioa errespetatuz» (Challet *et al.*, 2017a, 60. or.).

Ahozkoaren trebatzea lantzen duten ariketa anitzek idatziaren ahozkoratzea dute egiten: zuzena dena ahozkoan irakurri. Hona zein diren aurkitzen diren ariketak: gogoz errate-ariketak, ahoskera-ariketak, antzerkien taularatze-ariketak... Ahozko horietan interakzioa eta bat-batekotasuna proposatuak direlarik, ariketa hauen ezaugarri bereziak zehaztu gabe gelditzen dira.

Hizkuntzari buruzko lan didaktikoetan, oro har ahozkoak eta ahozkoaren barnean ahoskerak leku guti dute. Alta, ahoskera ez da gramatika bezala ikasten edo irakasten ahal. Fonetikan ariketa anitzak izan daitezke: entzun, azaldu, soinuak altxatu, zuzendu, etab. Ikusiz gaur egun Iparraldeko ikasle gehienentzat euskara bigarren hizkuntza dela, ahoskerak garrantzi handiagoa hartzen ahal luke. Euskararen aspektu fonetikoaren menderatzea semantikari lotzen diogu: hizkuntza baten ikaskuntzan, soinuak ekoiztean, ikasleek alderdi prosodikoak menderatzen dituzte, zentzua ekoizten dute (Saussure, 1972 [1916]). Hiztun berri batek bere burua ulertarazten badu, solasaren segitzeko gooa ukanen du.

3.6. Gaitasunak: ahozko hizkuntzaren lantzeko jarduerak eta ariketak

Gaitasunen aldetik, *hizkuntza-jarduera* kontzeptua agertzen da, eta ikasmateriala horren inguruan egituratua da. Izan ere, proposatuak diren ariketak, edukiak eta jarduerak bost gaitasunen inguruan antolatuta dira: entzunaren ulermena, idatziaren ulermena, ahozko adierazpena, idatzizko adierazpena eta interakzioa.

Gaitasun horien lantzeko kontsigna baliatua da. Kontsignak garrantzi berezia du irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan, eta eragiten duena ezaguna da: informazio argia eman, irakaslearen eskaeraren ulermen argia, ikasleen autonomia, etab. Kontsignak funtsezkoak dira, alde batetik, irakasleak duen proiektuaren gauzatzeko eta, bestetik, ikasleak lanean ezartzeko. Horregatik, horien aztertzea hautatu dugu, ekintza pedagogikoan eragina baitute eta ikasleen ikaskuntza-prozesua baldintzatzen.

3.6.1. Entzunaren ulermena

Entzunaren ulermenaren lantzea proposatzen duten kontsignak altxatu ditugu:

- (6) Kantua entzun eta hutsuneak bete itzazu (Challet *et al.*, 2017b, 10. or.).
- (7) Grabaketa 3 aldiz entzun eta erranaldi bakoitza zuzen ala oker den errazu (Challet *et al.*, 2017b, 24. or.).
- (8) Kantua entzun ezazu eta lerro-muturrak osa itzazu, hitz egokia bazterreko multzoan hautatuz (Challet *et al.*, 2017b, 25. or.).
- (9) Kantua testurik gabe entzun, behin, denek elkarrekin (begiak hets daitezke, hobe ki kontzentratzeko). Irakaslea arbelean da eta ikasleen erranak idazten ditu azpiko galdeen inguruan (Challet *et al.*, 2017b, 25. or.).

Hauetan ahozkoa eta idatzia hertsiki elkarri lotuak dira, ahozko baten ulertzeko idatzitik pasatzen baikara.

3.6.2. Ahozko adierazpena

Ahozko adierazpena lantzen duten kontsigna zenbait bildu dugu:

- (10) Nolako amorosa zara? Zu, pazientziaduna zara, printze edo printzesa xarmanta igurikatzen duzu, norbaitez bat-batean maitemintzea, inarrosaldi handia. Eleberriek eta filmek ez dute zuretzat sekreturik. Kasu! Egiatzko bizian, konplikatuagoa da... *Serial lover* bat zara. Gehienbat interesatzen zaituena batetik bestera ibiltzea da. Zure xarmaz segur eta fida zara, haurtzarotik denak xoratzen dituzu. Han-hemenka jolastearen bortxaz, pertsona arin bat bezala hartua izanen zara. Kasu! Asko zureganik urrunduko dira ere (Challet *et al.*, 2017b, 16. or.).
- (11) Banaka edo binaka ikasleek maitasun-kantu batzuk aurkeztuko dituzte gelaren aitzinean; idazlearen eta interpretatzailearen xehetasunak emanaz. Argazkiak, grabaketak eta bideoak baliatuko dituzte beren aurkezpenean. Ilustratzeko, gelaren aitzinean ere kanta dezakete, musika tresna baten laguntzaz.
- (12) Taldeka: «Umekeriak ahazteko edadean gaude» testuan oinarrituz, esketx batzuk asma daitezke, neska-mutilen arteko istorioak asmatuz. Idatzi, ikasi eta antzeztu (Challet *et al.*, 2017b, 33. or.).

Kontsignen azterketak erakusten du ahozko jardueretan ez direla ahozko mota guztiak agertzen. Ahozko testu-genero formalak nagusi dira (eztabaida, antzerkia, ahozko aurkezpena), bat-batekoak diren ahozkoak aldiz, gutiago. Ikasle gehienentzat euskara bigarren hizkuntza denez, normala da bat-bateko ahozkoa guti garatua izan dadin. Halere, beste bigarren hizkuntzen irakaskuntzan bezala, bat-bateko egoerak eta egoera ez-formalak ere bultzatu beharko lirateke. Genero formalak jende aitzinean ekoizten diren ahozkoak dira. Horrek erran nahi du bat-batekotasunetik urruntzen garela. Eskolan lantzen diren beste genero formalak hauek dira, besteak beste: ahozko aurkezpena, eztabaida gidatua, irрати-elkarrizketa, ozenki irakurtzea, mintzaldia eta ipuin kontaketa (Dolz & Schnewly, 1998).

H1en irakaskuntzan, genero formalen lantzea arras naturala agertzen da, bat-bateko ahozkoa eta ahozko solasaren irakasteko beharrik ez baita. Eskola bezalako instituzio formal bati dagokio ahozko genero formalen lantzea, hizkuntzaren molde landuak ikasleei ezagutarazteko. Eskolaz kanpoko zenbait ahozko egokituak izan dira (elkarrizketa, irрати-elkarrizketa) klasean lantzeko, beren balioa eskolatik haratago baitoa (Dolz & Schnewly, 1998).

3.6.3. Elkarreragina

Beste gaitasunentzat bezala, interakzioaren lantzeko proposatuak zaizkigun kontsignak altxatu ditugu (Challet *et al.*, 2017b).

- (13) Nesken eta mutilen arteko harremanak 1. irudia aztertzen dut. Boule eta Bill iruditu-
taula oinarritzat hartuz, eztabaida batzuk antolatuko dira. Ikastalde handia baldin
bada, hainbat eztabaida antola daitezke denbora mugatu batean (bospasei minutu
talde bakoitzarentzat, adibidez). Moderatzailea irakaslea izan daiteke ikasle ba-
tzuek lagundurik. Ikusmolde guziek argumentaturik izan behar dute.

Eztabaida gaiak: Boulek neskarekin duen ibilmoldea egokia ote da? Neskaren
erreakzioa egokia ote da? Zer egin edo nola egin daiteke neska bati edo mutil bati
hurbiltzeko? Kasu honetan, batek proposamena egitean, besteek beren ikusmol-
dea eman behar dute (Challet *et al.*, 2017b, 21. or.).

- (14) 1. urratsa: ikasleak taldeka ezarriko dira, eta idazkari bat hautatuko dute. Carolina
eta Wendy bere amaren jarrerak aztertuko dituzte. Azterketaren bilduma aman-
komun bat adostu beharko da. 2. urratsa: gela osoa bil eta erantzunak konpara.
Horretarako ikasle batek idazkariaren rola beteko du eta beste ikasle batek boze-
ramailearena (Challet *et al.*, 2017b, 62. or.).

Elkarreraginean, ahozko eztabaida gidatua testu-genero gisa landua da. Eztabaida
irakaskuntza-objektu bezala hartua delarik, eztabaidarentzat hautatzen den gaia garran-
tzitsua da, ikasleentzat interesa ukan behar baitu. Eskainiak zaizkigun gaiak egokiak dira,
ikasleen bizi hurbilari lotuak: neska eta mutilen arteko harremanak, eta amaren jarrerak.
Eztabaida batean eztabaidagai den gai bat hautatzen da, ondotik partaideen artean ezta-
baidatuko da, kontrako ikusmoldeak agertzen dira, testuingurua publikoa da eta gidari
edo bitartekari batek zuzentzen du. Helburu bat baino gehiago ditu ahozko eztabaidak:

erabaki bat hartu, gai bat sakondu, entzuleak dibertitu, etab. (Dolz & Schneuwly, 1998, 163-169. or.).

Bestalde, eztabaida batean bitartekariak jakin behar du zer egin. Eginkizun sozialak segurtatu behar ditu (agurtu, partaideak aurkeztu...), edukia bideratu behar du (eztabaidagaia eta eremua aurkeztu, eztabaida ireki eta hetsi, egituratu, behar delarik berriz bideratu, gai berriak proposatu, etab.), denen arteko lotura segurtatu behar du (mintzalari eta entzule). Gure materialean bitartekaria «irakaslea izan daiteke, ikasle batzuek lagundurik» (14. adibidea).

Ikasmaterialean, ahozko eztabaidaren ebaluatzen irizpiderik ez da agertzen, eta hauek irakaslearen kaieran gehi daitezke, adibidez. Irizpide hauekin ebaluazio-fitxa bat sor daiteke eztabaida testu-genero gisa hartuz, ikasleen lanak ondoko irizpideekin ebaluatzen: modulazio-aldaketak, ikuspuntu-aldaketak, argumentuak, kontra erranak, argumentuen egokitasuna, ñabardurak, txandakatzeak, geldialdiak, birformulazioak, eztabaida baten parte ezberdinak (aurkezpena, galdea, partaideen aurkezpena...), ba-koitzaren rola (hitza eman, eztabaida berriz abiarazi, norabidea aldatu, etab.).

4. Ondorioak

Eskuliburua ikerketa-oinarri gisa guti aztertua da didaktikan (Louichon, 2015, 29. or.). Alta, ikerketa-objektu interesgarria da eta horren baitan agertzen diren diskurtso eta formek informazio anitz ematen dute irakasgaiari buruz, klasean egiten diren praktikei buruz eta irakatsia den hizkuntza-motari eta edukiei buruz.

Ikasmaterialean ahozkoaren lantzeko ariketak eta jarduerak proposatuak dira. Ahozkoa irakaskuntza-tresna gisa hartzen da irakaskuntza-objektutzat baino gehiago. Ulermenean bideoak, audioak, kantuak eta grabaketak baliatzen dira segurtatzeko emana den informazioa ulertua dela. Ahozko adierazpenenean jarduerak proposatzen dute iritzi baten ematea, eztabaidatzea, aurkezpen baten egitea, etab. Ahozko hizkuntza hein batean objektu bezala hartzen da: hizkuntzaren osagai prosodikoak landuak dira, adibidez.

Aldiz, testu-generoa ez da ikasmaterial honen ardatza, ardatz nagusia tematikoa da, ahozko komunikazioaren molde ez linguistikoak ez dira aipatzen (Dolz & Schneuwly, 1998, 57. or.). Honez gain, ikasmateriala hurbilketa komunikatiboari jarraikitzen zaio, hizkuntza komunikazio-tresna da, interakzio sozialentzat baliatzen da. Helburua komunikazio-gaitasunen lortzea da, aspektu linguistikoa, soziolinguistikoa, diskurtsiboa eta estrategikoa garatuz. Ikuspegi testuala ez da lehenetsia eta erranaldi-gramatika da lantzen dena, testu-gramatika baino gehiago. Hurbilketa komunikatiboa periodizazioan agertzen zaigu: periodizazio didaktikoa da; erran nahi baitu ikasmateriala irakaskuntza-programetan oinarritua dela (Louichon, 2015, 27. or.). Ez da beste marko teoriko edo ikuspegi epistemologikorik. Kolegioko ikastresna atzerriko hizkuntzen eta frantseseko programen arteko erdibidean da. Sartze nagusia konpetentzia da (ahozkoaren ulermena, idatziaren ulermena, ahozko ekoizpena eta elkarreragina). Gaien aldetik, hizkuntzako eta frantseseko programetako nozioak gurutzatuak dira; hala nola, *Bidaiak eta abenturak* eta *Bere bidearen bilatzea*. Ikuspegi testuala, aldiz, ez da segitzen: gaiak du sekuentziaren

batasuna egiten, ez testu-generoak edo diskurtso-motak; horiek barreiatuak aurkitzen ditugu.

Ahozko euskarak garrantzia du euskararen didaktikan. Horretarako, premiatsua da euskarako irakasleen formakuntzak ahozkoari leku berezia eman diezaion. Proposatutako dugun azterketan ikasmateria oinarri gisa hartu dugu, nahiz euskarako irakasleek baliatzen dituzten beste euskarri anitz ere interesgarri izan daitezkeen beste ikerketa batentzat.

Erreferentziak

- Casenave, J. (2018). Éléments pour l'élaboration d'un manuel de littérature basque pour les collèges et lycées, *Lengas*, 83. <https://journals.openedition.org/lengas/1638> helbidetik eskuratua.
- Challet, N. et al. (2017a). *Kolegioko ikastresna. 1. gaia: Bidaiak eta abenturak*. Uztaritze: IKAS.
- Challet, N. et al. (2017b). *Kolegioko ikastresna. 2. gaia: Bere bidearen bilatzea eta nortasunaren eraikitzea*. Uztaritze: IKAS.
- Challet, N. et al. (2017c). *Gramatika*. Uztaritze: IKAS.
- Chervel, A. (1998). *La culture scolaire, une approche historique*. Paris: Belin.
- Choppin, A. (1980). L'histoire des manuels scolaires : une approche globale. *Histoire de l'éducation*, 9, 1-25.
- Choppin, A. (1998). Du bon usage des manuels : une perspective historique. *Cahiers pédagogiques pour l'enseignement du second degré*, 369, 9-11.
- Choppin, A. (2005). L'édition scolaire française et ses contraintes : une perspective historique. In E. Bruillard (arg.), *Manuels scolaires, regards croisés* (39-53. or.). Caen: CRDP de Basse-Normandie.
- Conseil de l'Europe. (2001). *Cadre européen commun de référence pour les langues*. Paris: Didier.
- Cummins, J. (2008). Teaching for transfer: Challenging the two solitudes assumption in bilingual education. In J. Cummins & N. H. Hornberger (arg.), *Encyclopedia of language and education* (Vol. 5. *Bilingual education*) (2. argitalpena) (65-75. or.). Boston: Springer Science-Business Media.
- Dolz, J. & Schneuwly, B. (1998). *Pour un enseignement de l'oral*. Paris: ESF.
- Garcia, O. (2010). Linguaging and ethnifying. In J. Fishman & O. Garcia (zuz.), *Handbook of language and ethnic identity* (519-534. or.). Oxford: Oxford University Press.
- Garcia-Azkoaga, I. M., Diaz De Gereñu, L., Imaz A. & Alegria, A. (2010). Ahozko-tasunaren irakaskuntza bigarren hezkuntzako testuliburuetan. *Tantak*, 22(1), 7-42.
- Gourvennec, L. (2008). Théoriser l'exploitation de la chanson en classe de langue. *Langues modernes*, 4, 15-24.
- Haddouche, N., Dupuit, J.-S., Roser, E., Scarbonchi, F. & Laporte, E. (2016). *Rapport*

d'évaluation de l'Office public de la langue basque, l'Inspection Générale de l'Éducation Nationale. https://cache.media.education.gouv.fr/file/2016/26/3/2016-034-RAPPORT_OPLB_definitif_310816_640263.pdf helbidetik eskuratua.

- Larrigan, L. M. & Idiazabal, I. (2001). Ahozko hizkuntzari antza hartzeko hiru gogoe-ta. In *Euskalgintza XXI. mendeari buruz. XVI. biltzarra. Iker 19* (29-46. or.). Bilbo: Euskaltzaindia.
- Lespoux, Y. & Verny, M. J. (arg.). (2018). *Manuels scolaires et langues régionales. Lengas Revue de Sociolinguistique*, 83.
- Louichon, B. (2015). Essai d'analyse de l'analyse de manuels. In L. Perret-Truchot (zuz.), *Analyser les manuels scolaires. Questions de méthodes* (17-31. or.). Rennes: PUR.
- MENESR (2015). Programme pour le cycle 4. In *Bulletin officiel spécial n° 11 du 26 novembre 2015* (317-384. or.). Paris: MENESR.
- Saussure, F. de (1972 [1916]). *Cours de linguistique générale*. Paris: Payot.
- Sauvage, J. & Billières, M. (2019). Enseigner la phonétique d'une langue étrangère. *Recherches en didactique des langues et des cultures*, 16(1). <http://journals.openedition.org/rdlc/4234> helbidetik eskuratua.
- Verdelhan-Bourgade, M. & Auger, N. (2011). Les manuels et supports pédagogiques: catégorisations. In P. Blanchet & P. Chardenet (zuz.), *Guide pour la recherche en didactique des langues et des cultures. Approches contextualisées* (307-312. or.). Paris: Archives contemporaines.

Eranskina

Grammaire

- Nom et groupe nominal :
 - . Genre, pronoms personnels compléments et réfléchis.
 - . Détermination : articles, quantifieurs.
- Groupe verbal :
 - . Expression du présent, du passé, de l'avenir. Modaux. Passif. Construction des verbes.
- Enoncés simples et complexes :
 - . Coordination. Subordination. Relatifs. Discours indirect. Interrogation indirecte. Connecteurs.

Phonologie

- Prendre conscience des régularités de la langue orale.
- Prendre conscience des variations phoniques et phonologiques dans les usages d'une même langue.

- Viser la fluidité, l'intelligibilité, la sécurité linguistique personnelle dans la production orale : ne pas viser « l'accent natif ».

Écouter et comprendre

- Comprendre des messages oraux et des documents sonores de nature et de complexité variables.
- Se familiariser aux réalités sonores de la langue, et s'entraîner à la mémorisation.
- Repérer des indices pertinents, extralinguistiques ou linguistiques, pour identifier la situation d'énonciation et déduire le sens d'un message.
- Savoir lire des documents vidéo et savoir mettre en relation images et documents sonores.

Parler en continu

- Mobiliser à bon escient ses connaissances lexicales, culturelles, grammaticales pour produire un texte oral sur des sujets variés.
- Développer des stratégies pour surmonter un manque lexical lors d'une prise de parole, s'autocorriger et reformuler pour se faire comprendre.
- Respecter un registre et un niveau de langue.
- Mettre en voix son discours par la prononciation, l'intonation et la gestuelle adéquates.
- Prendre la parole pour raconter, décrire, expliquer, argumenter.

Réagir et dialoguer

- Développer des stratégies de compréhension orale en repérant des indices extralinguistiques ou linguistiques et en élaborant un discours commun.
- Réagir spontanément à des sollicitations verbales, en mobilisant des énoncés adéquats au contexte, dans une succession d'échanges qui alimentent le message ou le contredisent.

Aurkibidea / Índice

- 11 Aitzinsolasa
- 13 Prólogo
- 15 Testu-corpusen informazio morfosintaktikoaren etiketatze automatikoa
hizkuntz ezagutzan oinarrituz: zenbait arazo, hainbat erronka
ITZIAR ADURIZ, JOSE MARI ARRIOLA
- 31 Bertsolaritzaren genealogia subalternoak
LUZIA ALBERRO, K. JOSU BIJUESCA
- 47 Euskal hiztun berri gazteak muda-prozesuan: ekintza-ikerketa baten
behinbehineko emaitzak
ESTIBALIZ AMORRORTU, ANE ORTEGA, JONE GOIRIGOLZARRI
- 63 Garaziko euskararen azterketa diafasikoa
ALEXANDER ARTZELUS MUXIKA
- 81 Berridazketak Sarrionandiaren poesian eta Saizarbitoriaren *Egunero hasten
delako* nobelan: hurbilpen genetiko bat
MIKEL AYERBE SUDUPE
- 95 Somorrostro, mendebaldeko euskararen muga
GOIO BAÑALES, MIKEL GORROTXATEGI
- 113 Euskara sasoian? Euskararen sozializazioa Gasteizko
pilota-elkarte batean
IÑIGO BEITIA
- 127 Euskal hiztun natiboak, ez-natiboak eta hitanoa
GARBIÑE BEREZIARTUA ETXEBERRIA, BEÑAT MUGURUZA ASEGINOLAZA
- 141 Lingüística Histórica: estado actual
LYLE RICHARD CAMPBELL
- 163 Lenguas y sociolingüística en el interior del País Vasco en el siglo XIX:
testimonios del Archivo Zavala
BRUNO CAMUS BERGARECHE, SARA GÓMEZ SEIBANE

- 177 Les verbes psychologiques du basque : typologie et diachronie
DENIS CREISSELS, CÉLINE MOUNOLE
- 195 Testu-generoaren irudikapena eta erabilera ahozkoaren
didaktikan
LEIRE DIAZ DE GEREÑU LASAGA, ITZIAR IDIAZABAL GORROTXATEGI, LUIS MARI
LARRINGAN ARANZABAL
- 209 Zentsura-ikasketak gaur egun: aplikazioa euskal literaturan
AMAIA ELIZALDE ESTENAGA
- 223 Azentuazioaren eremu sintaktikoak mugatzen
ARANTZAZU ELORDIETA
- 237 Sintaktikoki etiketatutako euskarazko corpus historikoa
eraikitzen
AINARA ESTARRONA, IZASKUN ETXEBERRIA, RICARDO ETXEPARE, MANUEL
PADILLA-MOYANO, ANDER SORALUZE
- 253 Ahozkotasunaren didaktika ikuspegi dialektikotik abiatuta
AINHOA EZEIZA, JAVIER ENCINA
- 267 Ahozko euskararen erabilera eskolan: gako zenbait irakasleen prestakuntzarako
INES M. GARCIA-AZKOAGA, OLATZ BENGOETXEA, JOSUNE ZABALA
- 283 El corónimo navarro *Salazar / Zaraitzu*: origen y desarrollo de su doble
denominación
ROBERTO GONZÁLEZ DE VIÑASPRE
- 295 *Fontes Linguae Vasconum*: orígenes y documentos para una Historia
del Euskara
JOAQUÍN GORROCHATAGUI
- 315 Euskal literatura itzuliaren historiografia bateraturantz
MIREN IBARLUZEA SANTISTEBAN
- 329 Basque among the world's languages: a typological approach
IVÁN IGARTUA
- 351 Familias vascohablantes: propuesta de definición desde la socialización
lingüística
PAULA KASARES
- 363 Formation linguistique de basque aux enseignants, pour un enseignement
bilingue à parité horaire au Pays Basque Nord
BEÑAT LASCANO
- 375 Eñaut Etxamendiren obra narratiboaren ekarpena euskal poetika erruralari
ITZIAR MADINA
- 391 Erdaretarako literatur itzulpena: zeharkako eta zuzeneko itzulpenaren arteko
muga lausoa
ELIZABETE MANTEROLA AGIRREZABALAGA

- 405 Ahozko euskararen irakaskuntzarako irakasleen prestakuntza: berrikuntza didaktikoa eta soziala?
IBON MANTEROLA
- 421 Enkarterriko PI-(h)aran/(h)uri motako euskal toponimoak
MIKEL MARTÍNEZ ARETA
- 437 Diachronical hypotheses accounting for synchronic variation: the case of the Basque particle *ote*
SERGIO MONFORTE
- 453 Jardueraren azterketa irakasleak prestatzeko bide: debatearen ikas-irakaskuntzaren adibidea
AROA MURCIANO EIZAGUIRRE, ARANTZA OZAETA ELORTZA
- 467 Hausnarketa zenbait euskal literatura-ikerketetz
MARI JOSE OLAZIREGI
- 485 Ahozko euskara *Kolegioko ikastresna* ikasmaterialean
ARGIA OLÇOMENDY
- 501 Euskararen postposizioak
JAVIER ORMAZABAL
- 517 Hitz-ordenaren eragina zenbait ezaugarri gramatikalen erabilera-maiztasunean
LUIS PASTOR
- 533 Differential D-marking on proper names? A cross-linguistic study
IKER SALABERRI
- 547 Externalization and morphosyntactic parameters in Basque
HISAO TOKIZAKI
- 561 XIX. mendeko Debagoieneko testuez zenbait argitasun: egiletasuna eta iturriak
OXEL URIBE-ETXEBARRIA
- 579 Euskarazko perpausik gabeko azpikonparazioak
LAURA VELA-PLO
- 595 Latinaren aurreko osagai indoeuroparra Euskal Herriko toponimian: bukaeran -(iz)amo duten leku-izenak
LUIS MARI ZALDUA

Izenburua/Título:

Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari/Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca

© Argitaratzaileak/Editores:

Ekaitz Santazilia, Dorota Krajewska, Eneko Zuloaga, Borja Ariztimuño

© Egileak/Autores:

Itziar Aduriz, Jose Mari Arriola, Luzia Alberro, K. Josu Bijuesca, Estibaliz Amorrortu, Ane Ortega, Jone Goirigolzarri, Alexander Artzelus Muxika, Mikel Ayerbe Sudupe, Goio Bañales, Mikel Gorrotxategi, Iñigo Beitia, Garbiñe Bereziartua Etxeberria, Beñat Muguruza Aseginolaza, Lyle Richard Campbell, Bruno Camus Bergareche, Sara Gómez Seibane, Denis Creissels, Céline Mounole, Leire Diaz de Gereñu Lasaga, Itziar Idiazabal Gorrotxategi, Luis Mari Larringan Aranzabal, Amaia Elizalde Estenaga, Arantzazu Elordieta, Ainara Estarrona, Izaskun Etxeberria, Ricardo Etxepare, Manuel Padilla-Moyano, Ander Soraluze, Ainhoa Ezeiza, Javier Encina, Ines M. Garcia-Azkoaga, Olatz Bengoetxea, Josune Zabala, Roberto González de Viñaspre, Joaquín Gorrochategui, Miren Ibarluzea Santisteban, Iván Igartua, Paula Kasares, Beñat Lascano, Itziar Madina, Elizabete Manterola Agirrezabalaga, Ibon Manterola, Mikel Martínez Areta, Sergio Monforte, Aroa Murciano Eizaguirre, Arantza Ozaeta Elortza, Mari Jose Olaziregi, Argia Olçomendy, Javier Ormazabal, Luis Pastor, Iker Salaberri, Hisao Tokizaki, Oxel Uribe-Etxebarria, Laura Vela-Plo, Luis Mari Zaldua

© Argitaratzailea/Edita:

Nafarroako Gobernua/Gobierno de Navarra

Kultura eta Kirol Departamentua/Departamento de Cultura y Deporte

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia/Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana

Lanak adituek berrikusi dituzte, itsu bikoitzeko sistemaren bidez/Los trabajos han sido revisados por pares doble ciego.

Diseinua eta maketazioa/Diseño y maquetación:

Kö estudio

Imprimaketa/Impresión:

Linegrafic

ISBN: 978-84-235-3561-3

LG/DL: NA 1438-2020

Sustapena eta banaketa/Promoción y distribución:

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtsa/Fondo de Publicaciones del Gobierno de Navarra

Navas de Tolosa, 21

31002 Iruña/Pamplona

Tel.: 848 427 121

fondo.publicaciones@navarra.es

<https://publicaciones.navarra.es>

Fontes Linguae Vasconum 50 urte.

2019an 50 urte egin zituen Nafarroako Gobernuaren Vianako Printzea Erakundeak argitaratzen duen *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta* euskal hizkuntzalaritzako aldizkariak.

Horren gorazarre, liburu honek gaur egungo euskal hizkuntzalaritza- eta literatura-ikerketan zertan den erakutsi nahi du. Eskarmentu handiko ikertzaileek eta belaunaldi berriek bat egin dute argitalpen honetan, besteak beste, dialektologia, hizkuntzaren didaktika, filologia, gramatika teorikoa, hizkuntz tipologia, hizkuntzalaritza historikoa, itzulpengintza, literatura, onomastika eta soziolinguistika hizpide dituztela.

La revista de lingüística vasca *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta*, publicada por la Institución Príncipe de Viana del Gobierno de Navarra, cumplió 50 años en 2019.

En homenaje de la efemérides, este libro pretende dar cuenta del estado actual de la investigación en lingüística y literatura vascas. Investigadores de gran trayectoria y nuevas generaciones se reúnen en esta publicación para tratar, entre otros temas, sobre dialectología, didáctica de la lengua, filología, gramática teórica, tipología lingüística, lingüística histórica, traducción, literatura, onomástica y sociolingüística.

ISBN: 978-84-235-3561-3



9 788423 535613